



**8. Gertakizunak abesti**  
**SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

*\*Oñati alkarregaz ezaguketako\**

## **8. Gertakizunak abesti**

### **MUINA**

- Helburuak
  - Orokorrak
    - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Erdi Aroan Oñatiko hiru pasarte biltzen dituzten hiru bertso sortaren berri izango dute eta hauek adibidetzat hartuz, eurentzat euren bizitzetan esanguratsuak diren pasarteak kopia bihurtuko dituzte, ondorengoek horien berri izan dezaten.
  - Espezifikoak
    - Oñatin Erdi Aroko gertakizun gutxi batzuk bertsoan jasota daudela ikastea.
    - Gaitasun artistiko-estetikoa lantzea.
    - Kopia, errima eta neurria zer den ezagutzea.
    - Hizkuntzarekin jolasteko ahalmena lantzea.
    - Euskararen aldaerak ikustea.
    - Taldean lan egiteko gaitasuna lantzea.
    - Sentimenduak adierazteko beste esparru batzuk esploratzea.
    - Transmisioaren garrantziaz jabetzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
  - Azken xedea izango da ikasleentzat esanguratsua den pasarte bat kopia bihurtu eta berau kantatzea.
- Ikaste taldea
  - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

## SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

### HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Aurrezagutzak identifikatzen

-Sekuentzia honetan transmisioaren ideari berebiziko garrantzia emango zaio. Talde txikitan jarriko ditugu haurrak eta esango diegu oraingo honetan lehiaketa antzerako bat egin behar dutela. 3-4 laguneko taldetan jarrita, talde bakoitzak orri-mutu bat izango du eskuartean. Galdera honi erantzun beharko diote: "Oñatin, antzina, gauza asko gertatu ziren. Horien berri zeren bidez jakin dugu?" Beraz, galdera horri erantzun gehien ematen dizkion taldeak "irabazi" egingo du jolasa (erantzun beharko dute: gutunak, berriak, fosilak, monumentuak...). 2-3 minutu izango dituzte ahalik eta ideia gehienak zerrendatzeko.

-Denbora amaitu ostean, talde bakoitzetik ordezkari batek irakurriko du euren taldeak zer jarri duen eta irakasleak puntuaketa arbelean jarriko du. Gehien jarri dituenak taldearen txaloa jasoko du. Baliteke talderen batek **olerkiak** idaztea -harritzekoa litzateke, agian-, baina ez badute hori idatzi jarraituko dugu esanaz ea beste zerbait ote dagoen. Izan ere, heldu behar gara esatera olerkiak edo bertsoak ere badirela transmisiorako gako garrantzitsuak.

-Agian hel gaitezke aiton-amonek kantatzen zizkiguten kantuetara. Eta hortik atera olerki/bertsoen kontua. Eta hemen ere aprobeitza dezakegu besteei ezagutzera emateko zer kantu abesten diguten/ziguten aiton-amonek. Beraz, horiek abestu nahi dituenari espazioa emango diegu eta aukeren arabera egoerak eskatzen badu, lagun diezaiogegu.

- 2. jarduera → Transmisio bideak

-Hurrengo jarduera honetan asanbladan jarriko ditugu ikasleak. Aurretik proposatutako sekuentziaren bat egin bada, transmisio bideak izan diren batzuk landuta edukiko dituzte eta hauek gogoratzera pasa gaitezke: Gutunak, hezurak, historiaurreko monumentuak... Esango diegu hauen bidez, gure arbasoen bizitza hobeto ulertzera hel gaitezkeela eta imajinatzen nola bizi ziren. Zer egiten zuten, zer modutan bizi ziren, zer lanbide zeuzkaten... Eta galdetuko diegu hori jakitea ea garrantzitsua den euren ustez. Galdera honi erantzuteko espazioa utziko dugu.

-Eta orduan galdera hau egingo diegu: Zer gertatuko litzateke gutun horiek idatziko ez balira? Monumentu horiek ez balira egingo? Hezurak desagertu egingo balira? Asanbladan haur bakoitzak bere ustea azal dezala eta saiaturako gara denen parte-hartzea bermatzen eta besteek hitza hartzen duenaren iritzia aintzat hartzen.

-Atera beharreko ondorioetako bat da gertatzen dena nolabait jasota - idatzita, grabatuta, ahoz-ahoz transmitituta - geratzen ez bada, gure haurrek ez dutela jakingo gure bizitza nolakoa izan den. Eta informazio hori betirako galdu egingo da. Horregatik da garrantzitsua

inportantea iruditzen zaigun guztia jasota geratzea, ondorengoek jakin dezaten gu nolakoak ginen eta zer zen guretzat garrantzitsua.

- 3. jarduera → Gu koblakari

-Aurreko jarduerako hausnarketak aprobeztatuz eta konfiantza giro bat sortuz, galdetuko diegu ea eurek sekula marraztu edo idatzi duten gertatu izan zaien ezer. Baiezko erantzunik egongo balitz, galdetuko diegu zer izan den, zergatik egin duten...

-Eta hari horri jarraituz esango diegu haurrei: *“Hara! Eta bertsoak egiten baditugu gelan gertatzen diren gauzekin? Horrela hurrengo urteetan etorriko direnek jakingo dute zer gertatu izan den hemen!”*

-Beraz, horretarako gonbidapena egingo diegu haurrei eta begi onez ikusi ostean lanean hasteko prest egongo dira.

- 4. jarduera → Oñatiko bertso zaharrak

-Orain arte olerki edo bertso moduan agertu direnak, aiton-amonen kantuak izan dira. Baina esango diegu, Oñatiri buruz aurkitu diren lehenengo olerkiak Erdi Arokoak direla eta oso garrantzitsua dela horiek behintzat aipatzea eta aztertzea, guk ere lan on bat egiteko. Beraz, talde handian irakasleak aditu papera hartuko du jarduera honetan, halaberrez.

-Eranskinetan hiru dira aurkezten diren idatziak. Honako jardueran bat hartuko da aintzat eta lanketa horrekin egingo da. Guztiak aipatu litezke modu orokorrean, ez baitira luzeak. Baina lanketa batekin egitea gomendatzen da eta horretarako eranskinetan nahikoa informazio dago.

-**Urruxolako guduaren kantua** erabiliko dugu horretarako. Irakasleak kantu hartako leloa-edo gelako arbelean idatziko du lehenbizi eta gero altuan irakurriko du eta denei adi egoteko esango die:

*“Gaitza zenduan leiztarrak Urruxolako lekaioa  
sendo zenduan odolori biurtu jatzu gatzaioa”.*

-Eta orain azterketa fasera igaroko garela esango du irakasleak. *“Inork ulertu du zer esan nahi duen? Zer da ulertu duzuen?”* Hitzez hitz joango gara leloa deszifratzen. Esate baterako, hemendik interesgarriena da **Urruxola auzoa, odola, lekaioa...** hitz horiek deszifratzea da eta horiekin zer imajinatzen duten. **Leintzekoak** ere aipatzea ez legoke gaizki.

-Irakasleak esango du Erdi Aroan Urruxolan egon zela borroka handi bat Leintzekoak Oñatiarren kontra. Eta leloan esaten dela Urruxolatik entzun zen lekaioa -edo gerra-oihua-txarra izan zela leiztarrentzat haietariko asko bertan hil zirelako (eta odola gatzai edo gatzatu bihurtu zitzaielako).

-Eta azken gauza batean ere gonbidatuko ditugu haurrak arreta jartzera. Galdetuko diegu ea ezer berezirik ikusten duten hitzen artean. Ea zer ikusten duten lerroetako azken hitzean. Eta esango diegu horri **errima** deitzen zaiola eta abesti batek izan beharreko baldintzetako bat dela hori. Eta guk ere egingo ditugunez oso garrantzitsua izango da hori kontuan hartzea. Hau hasiera da, baina bertsoak beste baldintza batzuk baditu eta horiek ere ezagutu beharrekoak dira egin nahi dena ondo burutu ahal izateko.

## GARAPEN FASEA

- 5. Jarduera → Bertsolaritza ikastaroa

-Orduan aurreko sekuentzietan bezala, ikastaro bat antolatzea izan daiteke erantzun on bat hezkuntza komunitatearekin harremana sendotzeko. Aurrekoetan eskola barrukoekin proposatu dira ikastaroak, baina oraingoan, guraso edo senide bertsolari / idazle / musikari bat gonbidatzea ondo legoke. Honek KOPLAren inguruan hitz egin beharko du.

-Hau antolatu ahal izateko, gonbidapen-gutun bat denon artean idatzi beharrean, gonbidapen bideo bat grabatuko dugu. Guztion artean pentsatu beharko da zer esan gonbidapen bideoan eta etortzea nahi dugun horri bidaliko diogu.

-Demagun bertsolaria dela etortzen dena. Ikastaroa hasterako esango du koplak 3 ezaugarri dituela. ERRIMA, NEURRIA, MUSIKA.

-Errimaren adibide bezala erabili dezake lehenago aipatutako bertso zahar hori. Neurria eta musikari dagokionez, Oñatin jasotako doinu hau erabil daiteke, Aita Donostiak bildua: <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2706-santa-martiri-maitia-joles-da-joles> Hala, silabak kontatzen trebatuko dira eta hizkuntzarekin jolasteko lehen pausoak emango dituzte.

-Eta zuzenean pare bat kopla kanta ditzan eskatuko diogu gonbidatuari. Hala hurrei gogoia piztuko zaie hori ere eurek egiteko.

-Haurrek hau ikusita, talde txikitan euren kopla propioak sortuko dituzte. Ez gara gehiegi fijatuko silaba kopuruan... gehienbat erriman. Talde bakoitzak bat (honek ez du zerikusirik izango azken helburuko horrekin). Eta denbora baten ostean gonbidatuari kantatuko dizkiote kopla horiek. Eta hauek erabiliko dituzte gehiago ikasteko.

Noski, hauek egiteko orduan ere gonbidatuaren zuzeneko laguntza izango dute. Poliki-poliki haurrek ere uler dezaten zer den kopla.

-Gonbidatua agurtu aurretik zalantzetarako tartea irekiko dugu eta zalantzarik ez bada, argazkia aterako dugu. Eta honenbestez, prest egongo lirarteke haurrak azken erronkari aurre egiteko.

- 6. Jarduera → Zer gertatu zaigu?

-Orain ikasitako guztiaz jabetu gaitezen, irakasleak gogora ekarriko du azken erronkari erantzuteko ikasi dugula zergatik den hain garrantzitsua jasota geratzea gertatu den hori eta nola egin dezakegun hori, esate baterako bertsoen bidez.

-Beraz, hurrengo pausoa litzateke talde txikitan zerrendatzea oroitzea klasean zer gauza gertatu diren. Izan daitezke onak, izan daitezke txarrak, alaiak, tristeak... Bakoitzak nahi bezalakoak, baina hori bai; izan behar dute esanguratsuak eta era berean garrantzitsuak.

-Horretarako orri-mutu bana emango zaie eta zerrenda bat osatu beharko dute.

-Zerrenda egin ostean talde bakoitzak bere gertakari garrantzitsuena aukeratu beharko du. Hemen kontutan izan beharko da ea gatazkarik sortzen den. Hala bada, espazioa aprobetxatuko dugu gatazka hori lantzeko.

## EKOIZPEN FASEA

- 7. jarduera → Bertsoak sortzen

-Gaia edukita, koplak sortzeko txantilo bat banatuko diegu. Nahi beste egin ditzakete. Gutxienez bat.

-Prozesu hau ez dugu zorrotasunez jarraituko. Besterik gabe, eurek hizkuntzarekin jolas dezaketela ikus dezaten pauso bat da. Ez gara ari kopla perfektuak eskatzen, baizik eta ikus dezaten hori egin daitekeela gauzak kontatzeko. Hori da helburua. Beraz, errima “txarrak” neurri “okerrak” eta doinu “irregularrak” beso-zabalik hartuko ditugu eta animatuko ditugu lanean jarrai dezaten.

-Doinuaren kontuan ere, eurentzat opari bat izan daiteke doinua eurek asmatzea. Uste baino errazago egiten dute hurrek hau. Noski, irregularra izango da, baina aukera oso ona izango litzateke taldean melodiato bat sortzea. Errepikatzearen poderioz ikasiko dutena.

-Agian bi nota izango dira soilik (edo bakarra!), baina sormen prozesu bat burutzen ariko dira, euren neurrikoa eta euren gaitasunen baitan. Matematikan nahikoa izango dute 3+3ko ariketa bat egiten. Ez diegu ekuazio bat egiteko eskatuko. Musikan ere berdin. Nahikoa dute hitzak modu lirikoan esatearekin, ez diegu sinfonia bat eskatuko.

-Eta esperimentazioaren bitartez, aterako dituzte ondorioak. Gainera musikako irakaslearekin lantzeko zerbait izan daiteke hau eta ikasgai isolatu modura ematen bada, bertako proiektu ere bilakatu daiteke paraleloki.

- 8. jarduera → Bateratu eta aurkeztu

-Koplak amaitu, entseatu eta abar egin ostean, garaia da gelan aurkezteko. Noski, aurkezpenak nahi bezalako neurria izan dezake. Baina gela barruko gertakizunak direnez, gelakoen artean egitea polita litzateke.

-Beraz, halako areto bat muntatuko dugu gelan. Mahai guztiak alboratu, aurrean eszenatokia balego bezala jokatu eta parean publikoa.

-Beraz, taldeak banan-banan irtengo dira oholtzara eta euren koplak abestuko dute lehenengo eta gero beharrezkoa bada gertakizuna gogora ekarriko dute. Komeni da koplak guztiak grabatzea, hala, edukiko dugu ikastaroa ematera etorri den horri nola eskertu.

-Txaloz amaituko da saioa eta denon lana eskertuz.

- 9. Jarduera → Egindakoaren ebaluazioa

-Egindako bidearen ebaluaketa egiteko, proiektu hau egiteko erabili den espazioko objektuak erabiliko dira. Bakoitzak objektu bat hartu beharko du eta horren bitartez azaldu beharko du zer ikasi duen berak eta taldeak. Eta azalpena eman ostean objektu hori lurrean jarriko du bide bat marraztuz.

-Guztiok hau egindakoan, argazkia aterako diogu lurrean marraztutako bideari eta nahi izanez gero, eskerrak emateko bideo bat grabatuko diogu ikastaroa eman duen horri (irakasleak egindako koplak baten bidez?).

## **HEZURDURA**

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaien murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
  - 1. jarduera → Aurrezagutzak identifikatzen
    - Helburua: Antzinako gertakizunen berri izateko transmisio bideak zein izan diren jakin aurretik, hipotesiak formulatzea.
    - Baliabideak: Irakaslearen galdera sorta eta paper mutua.
    - Ebaluazioa: Behaketa.
  - 2. jarduera → Transmisio bideak
    - Helburua: Antzinako gertakizunen berri izateko transmisio bideak zein izan diren jakitea, alde batetik. Bestalde hausnartzea zer gertatuko litzatekeen hauek ez baleude.
    - Baliabideak: Irakaslearen galdera sorta.
    - Ebaluazioa: Behaketa
  - 3. jarduera → Gu koblakari
    - Helburua: Proiektua zein izango den finkatzea.
    - Baliabideak: -
    - Ebaluazioa: Behaketa
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
  - 4. jarduera → Oñatiko bertso zaharrak.
    - Helburua: Oñatiko Erdi Aroko 3 gertaeren bertsoak erakustea eta aztertzea.
    - Baliabideak: Oñatiko bertso zaharrak.
    - Ebaluazioa: Behaketa.
  - 5. Jarduera → Bertsolaritza ikastaroa.
    - Helburua: Bertsoak zertan dautzan ikasteko ikastaro bat antolatzea eta parte hartzea.
    - Baliabideak: Paper mutuak, arbela, proiektorea...
    - Ebaluazioa: Paperera ekarritakoa eta behaketa.
  - 6. Jarduera → Zer gertatu zaigu?
    - Helburua: Ikasleei gertatu zaienaren zerrenda luzea egitea eta transmititu nahi duten horren aukeraketa egitea.
    - Baliabideak: Paper mutuak.
    - Ebaluazioa: Behaketa eta idatzitakoa.



- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
  - 7. jarduera → Bertsoak sortzen
    - Helburua: Talde txikitan aukeratutako horren koplak idaztea eta musika konposatzea.
    - Baliabideak: Koplak sortzeko plantilla.
    - Ebaluazioa: Koplak eta behaketa.
  - 8. jarduera → Bateratu eta aurkeztu
    - Helburua: Egindako lana bateratu eta talde handian aurkeztea.
    - Baliabideak: Koplak eta bideo grabagailu bat.
    - Ebaluazioa: Grabazioak.
  - 9. Jarduera → Egindakoaren ebaluazioa.
    - Helburua: Egindako bidearen ebaluazio kontziente bat egitea.
    - Baliabideak: Objektuak.
    - Ebaluazioa: Sortutako materiala.

## **ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)**

### **GERTAKARIAK ABESTI:**

#### **1- Urruxolako guduaren kanta (1388-1401)**

[http://jerardoelortza.eus/gallery/letrarik\\_letra.pdf](http://jerardoelortza.eus/gallery/letrarik_letra.pdf)

ETXE-AUNDI jatetxe gisa ezagutzen dugu azken urteotan. Aurre k baserria izan genuen mendeetan zehar. Erdi Aroan jaso zuten Lazarraga familiakoek eta hauxe izan zuten euren jatorrizko sortetxea. Kaleko jauregia, plazakoa, erosi zutenean, San Pedroko etxe hau garrantzia galduz joan zen eta azkenerako maizterrei alokatutako baserri bihurtu. Etxearen tankerak ere aldakuntza sakonak izango zituen seguruenek, eta guk ezagutu dugun baserriak XVII-XVIII. mende aldera hartuko zuen egitura hori. Auzoa bera Lazarraga deitu zen denbora askoan, nahiz eta gerora San Pedro (ermitaga k) edo Torreauzo (zubi ondoko Ganbar torrea k) nagusitu diren.

Etxe-aundiko Lazarragatarrek zeresan asko eman zuten Oña n, Araban eta beste zenbait lekutan historian zehar. Baiña gaurkoan ornetxe honekin zerikusia duten bi kanta soilik gogoratuko ditugu. Bata oso zaharra da, XIV-XV. mendekoa, eta Oña eta Leintzen artean izandako burruken lekukotzat geratu zaigu. Urruxola-garaiko mendatean 1400. urte inguruan gertatu zen gudu batean oña arren buruzagiak Pedro Garibai eta Joan Ibañez Elazarraga lehengusuak izan ziren (bata Torrekkoa eta bestea Etxe-aundikoa, seguraski); leitzarrek, aldiz, Galartzako jaunaren semea zeukaten aintzindari moduan. Nahiz eta gatazkan jasan zituen zaurien ondorioz Garibai gaztea

híl, orduko kronikek diotenez, garaipen borobila lortu zuten oña arrek. Euskarazko kanta bat ere onduzuten burruka gogor haren oroitzapenetan:

Gaitza zenduan leiztarrak Urruxalaka lekaioa, Sendo zemiuan odolori biurtu jatzu gatzatua.

Hau da, Urruxola gaineko lekaixo edo gerra-irrintzia zorigaitzokoa suertatu zitzaiela leiztarrei, hauetariko askok heriotza aurkitu zutelako egun hartako guduan.

Bigarren kanta, berriz, bost mende t'erdi beranduago asmatu zuen Lazarragatarren ondorengoen azkenengo errenteroak: Ixak Etxezarretak, alegia. Etxandin orain dela hamabost bat urtera arte bizi izan zen nekazari umoretsu hark Oña ko berbenetan hainbat denboran modan izan genuen abes famatu bat utzi zigun. Hau ere, kasualidadez, Urruxolari buruzko aipamen batez hasten da:

Araotz ela Urrusulan ibilli gai uk ondo, baiña be k dispuesta San Pedrara fateko...

## 2- ARRASATEKO ERREKETA (1448)

<http://basquepoetry.eus/?i=poemak&b=825>

### ARRASATEKO ERREKETA

anonimoa , 1448 \*Grafia eguneratuta\*

Gal didila Untzueta ta Bergara.  
Zaldibarrek bere partea debala.  
Aramaio, suak erre hazala.  
Ta sumi a[..]la Guraiarra,  
Zeren zeuren jauna ez zentzan enpara.

Gomez handia zan arren,  
Han zan Presebal bere,  
Bai Joanikote bere.  
Madalenan han ei dautza  
Biola-tronpeta bage.

Gomizek asko lagunik,  
Zabal arabarrik,  
Giputz ondo ederrik,  
Bizkaitar urduri gogorrik.  
Ez diatzo bakarrik,  
Ze han daz Presebal hilik,  
Juanikotegaz lagundurik,  
Txibuluen ospe bagerik,  
Ez urrun Malogenik.

Argizarrak urten dau  
Zeruan goian ostantzean;  
Bergararrok hasi dira  
Trazioe baten asmatzean,  
Euroen artean dioela:  
Erre dezagun Mondragoe.  
Lasterreon sar gaitezan  
Kantoeko sartzaikeran,  
Haen bizarrak ikara zirean  
Armakaz ezin egien legez ezer  
Ganboarrok su emaitean  
Hasi dira, ta honegaz urten daude ber'alan  
Oñeztar barruangoak  
Zein erre ez zitezana.  
Gomiz Gonsalutx bertan zan,  
Beragaz Presebalen kaltean  
Joanikok eta beste askok  
Eudela parte bertan.

Oin harrok zituan luma  
Ozaetaco jaun gazteak;  
Laster baten igaro zan

**Uraz alde bestean.  
Ama bereak esan eutsan:  
Semea, zer dok horrelan?  
Zaurietan kuradu eta,  
ama, nagozu ohera.  
Egun behin ur jarruta  
Ganboar seme lasterra,  
Are bere lasterrago  
Abendañue Motela.  
Eskerrik asko emaiten deusat  
Andra Santa Maiñari:  
Bera axei zat sartu eta  
Etxera bidaldu nau ni.**

Banderizoen arteko borrokarik odoltsuenetako bat narratzen du. Ganboatarrak Arrasaten sutea eragin zuten bertako Oñaztarrak hiribildutik irteteko. Hauek Portaloitik atera bezain laster, han zeuden euren etsaiak zain eta hil egin zituzten. Bertsoetan bertan hil ziren hainbat pertsonaia agertzen dira.

### **3- Sandailiko kanta (XV. mende Erdialdea)**

<https://klasikoak.armiarma.eus/testuak/herri14016.htm>

Solíanse acoger los Lacayos de todo el Bascuence a Oñate, a Sancho García de Garibay, y estos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía [edateko eman ziezaien]. Y como no les daba, le quitaron de su dinero, y después se quejó al Corregidor y a toda la Provincia, los cuales embiaron al Merino maior con mucha gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho Garcia y sus lacayos, los cuales huyeron a la Cueva de Santa Iliá, y allí los cercaron; y esta cueba tiene una puerta quasi media legua de distancia y por allí les proveyan de todo lo necesario sus amigos con un criado que se llamaba Zalagarda, y se compuso entonces este cantar:

Ala Zalagarda  
Zalagarda mala  
Zalagarda gaisto  
Oñaztarra oondaco  
Ardao zuri ardao Madrigalga,  
Ardao zuría Mendoza gana doa,  
Alabana Sandayli gogoa,  
Zalagarda Sandaylira doa.

Este Mendoza era el Merino mayor; y el vino que para él iba, cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de Santa Iliá. Toda la Hermandad los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataparon la torre de torresnos de

tocinos gordos y los asaron, pensando que con aquella manteca y grasa les abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron, y entonces se compuso este cantar:

Sanda iliac atrac ditu zizarrez  
Nola zizarrez da ala zendalez  
Hermandadea arcandoa negarrez  
Anso Garcia é gasteluori emunez  
Ec envinda estiquicha esan ez.  
Lascavarroen y esataco lastorra  
Lascavarro costatuan onela  
Gavaz ere urtunica obela  
Argui izarroc ditugula candela  
Ostatuan guera diro igu emenda.  
(Mitxelenak proposatutako irakurketa:  
Sandailiac atead ditu zizarrez,  
Nola zizarrez da ala zendalez.  
Hermandadea arean doa negarrez,  
Anso Garciac gasteluori emun ez,  
..... esan ez [esanez?].  
Lascauarroen yesetaco lasterra!  
Lascauarroc ostatuan onela:  
Gauaz ... urtenic .....  
Argui izarroc ditugula candela,  
Ostatuan .....)

-----

**Oñatin jasotako kopia doinua:**

<https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/2706-santa-martiri-maitia-joles-da-joles>